

28 zenbakia  
2019ko uztaila

# bai

Bai Euskarari  
Elkartearen aldizkaria

euskaragileak  
enpresen batzordea



**RAMON MENDIGUREN**  
CIKAUTXO

*“Ideiak, hobetzeko bideak, ikasitakoak eta abar eskaintzen zaizkie enpresei Euskaragiletu programaren bidez”*



**KEXUS AMASORRAIN**  
ELAY

*“Euskararen erabilera hasieratik sustatzea da harrera-planaren helburua”*



**XABIER MALMASORO**  
IMH

*“Ikasleak lan-praktikak egitera joaten dira enpresa askotara eta euskaraz egiteko aukera ezinbestekoa da”*



Rober Gutiérrez  
[Zuzendaria]  
@robergutierrez

## Egile eta eragile

Hizkuntza Eskubideen Behatokiak 'Hizkuntza Eskubideak Euskal Herrian 2018an' txostena aurkeztu du. Herritarrek helarazten dizkieten bizipenetan oinarrituta, hizkuntza-eskubideei buruzko argakia eskaintzen du urtero Behatokiak. Agerian geratu da, beste behin ere, ahoz zein idatziz euskaraz jarduteko zailtasunak daudela, eremu eta maila guztietan, mota guztietako zerbitzu eta jardueretan, baita lan esparruan eta kontsumo harremanetan ere.

Testuinguru honetan, administrazioen esku-hartzearekin batera eta herritarren eragite gaitasuna baliatuta, azpimarratu behar da enpresek, saltokiek eta era guztietako entitateek duten erantzukizuna. Era berean, babestu eta sustatu behar da alor sozioekonomikoan euskararen eza-gutza eta erabilera areagotzeko neurriak garatzen laguntzen duten Bai Euskarari Ziurtagiria bezalako ekimenen balioa ere. Euskaraz lan egin ahal izateko, euskaraz saltzeko eta erosteko, euskaraz kontsumitu ahal izateko, finean, euskaraz lan egiteko eta bizitzeko baldintza egokiak sortzen laguntzen baitute.

Bai Euskarari Elkarateak, ziurtagiriarekin batera, bestelako proiektuak ditu alor sozioekonomikoan euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko begira. Horien artean, Euskaragileak enpresa batzordearen lana bereziki agerrarazi beharrekoa da. BAI aldizkariaren zenbaki honetan protagonismoa eskaini diogu, garrantziko baiteritzogu enpresa traktore hauek egiten ari diren lana gizarteratzeari. Gogorazi nahi dut Bai Euskarari Elkaratearena dela bide-erakusle hauen batzordea dinamizatzearen ardura, oraingoz administrazioen laguntzarik gabe.

Egile eta eragile dira Euskaragileak. Hizkuntza kudeaketan aurreratuta dauden eta eredu garri diren enpresa hauen gizarte erantzukizunetik, euskararen normalizazioan eragile izateko funtzioa betetzea proposatu zaie. Alegia, denok erabiltzen eta kudeatzen ditugu hizkuntzak gure egunerokoan eta, hori modu batera edo bestera egiteak, guztiok bihurtzen gaitu norabide bateko edo besteko eragile. Hortaz, enpresa hauen lidergoa aintzat hartuta, lan munduaren euskalduntzean urrats berriak emateko aukera zabaldu eta biderkatu daiteke.

Batzordea osatutakoan, denon artean aztertu eta zehaztu ziren Euskaragileen funtzioak: eragile aktiboa izatea, lan munduaren euskalduntzean zeresana duten gainerako eragileen hizkuntza-politikan eragiten saiatuz; eredu garri izatea, enpresen arteko sinergiak sustatzea, enpresa berriak erakartzea, bitartekari eta sustatzaile izatea eta eginiko bideari balioa ematea, prestigiatzea eta onurak erakustea. Halaber, ekimen ugari abiatu dira enpresa batzorde honetatik hornitzaileengan, gainerako enpresetan eta langileengan eragiteko.

Gure aldetik euskarak eremu sozioekonomikoan duen egoeran jauzia emateko lanean segituko dugu, ekarpena egiten jarraitzeko konpromisoa berresten dugu, baina, argi dugu horretarako bezero, hornitzaile, zuzendaritza-talde, langile eta administrazioaren bultzada ere ezinbestekoak direla. Ekin diezaiozun helburu berarekin lanean ari garenon arteko esperientzia, ezagutza, praktika on eta erronkak elkarrekin bideratzeari, aurrean dugun bide malkartsua arinduko baitugu hala.

### Euskaragileak 03

**Ramón Mendiguren.**  
Cikautxo

**Ketus Amasorrain.**  
Elay

**Xabier Malmasoro.**  
IMH

### Bai Euskarari Sariak 08

### Bai Euskarari Laguna 09

### Intranet berria 10

### Entitate berriak 11

### Hizkuntza-eskubideen egoera alor sozioekonomikoan 12

### Pilotajeak Araban 14

### Enpresaren TB 15

Argitaratzailea: Bai Euskarari Elkarate  
www.baieuskarari.eus

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain  
t. 943592148

1 Arsenal Plaza - 64100 Baiona t. 0524336196

Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo t. 673811048

Rogelia de Alvaro Elkarateen Etxea A.1.1.  
Panama, z/g - 01012, Gasteiz t. 945215196

Martzelo Zelaieta, 75 U3 eraikina, 13. bulegoa  
31014 Iruñea t. 673811048

Zuzendaria: Rober Gutiérrez

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:  
Bai Euskarari Elkarate eta Arteman Komunikazioa.

Diseinua eta maketazioa: dalvez  
Argazkiak:

Bai Euskarari Elkarate eta  
Arteman Komunikazioa.

Inprimatzailea: Leitzaran

Banaketa: Bai Euskarari Elkarate

Lege gordailua: SS-497-2010

[baieuskarari.eus](http://baieuskarari.eus)





# *Euskaragileak: euskara lan-munduan normalizatzeko eragile*

2018ra arte, Kontseiluak kudeatu du proiektua eta aurrerantzean Bai Euskarari Elkartearen ardura izango da; arlo sozioekonomikoaren espazioak euskaraz betetzeko Bai Euskarari Elkartea egiten ari den ekarpen berrietako bat da orain Euskaragileak.

“Horrelako foroetan parte hartzea oso interesgarria da; izan ere, helburu berarekin lanean ari garenon arteko esperientzia, ezagutza, praktika on eta erronkak elkarrekin bideratzea emankorragoa da”. Unai Belaustegigoitia Batzeko Euskara batzordeko kidearen hitzak dira horiek. Hizkuntzak kudeatzeko plana dute Igorreko (Bizkaia) Batz kooperatiban eta lantegietan dituzten hizkuntza desberdinak kudeatzeko irizpide eta prozedurak daude jasota bertan. Euskara gestio planaren barruan sartzean, eguneroko lanaren integrazioa lortu dute, baita hizkuntza-

ren normalizazio prozesuan euskara enpresan integratzea ere.

Euskaragileen enpresa batzordeko kide da Batz, baita Antzuolako (Gipuzkoa) Goizper kooperatiba ere. Goizperko lan sisteman euskara txertatzea lortu dute eta Aitor Azkarate bertako Euskara koordinatzaileak esan digunez, euskaraz lan egiten dute kooperatiban eta normalizatuta dute euskararen erabilera. Orain arte barrura begira egindako lana kanpoan erakusteko garaia iritsi zela konturatu ziren, “besteentzat baliagarri izateko eta erreferente izateko” eta horregatik parte hartzen dute Euskaragileen enpresa batzordean.

Batz eta Goizperrekin batera, honako hauek osatzen dute Euskaragileen enpresa batzordea: Fagor, Cikautxo, IMH, Mondragon Korporazioa, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politekniko-

**Lan-mundua euskalduntze-ko adierazpenean (2013) jaso zen bezala, euskaraz saldu eta lan egin nahi duten enpresen sarea indartzea eta beren ereduak ezagutzera ematea lagungarria da enpresei begirako lanke-ta egiteko. Asmo horrekin jaio zen 2015ean Euskaragileak proiektua [<https://baieuskarari.eus/eu/euskaragileak>]; enpresen euskalduntzean aurreratuta dabilzan eta euskararen erabilera normalizatua duten Euskal Herriko zenbait enpresek osatzen dute Euskaragileak enpresen batzordea.**

koa, Elay, Irizar, Orkli, Danobat Group, Eika eta Elkar.

## **Inguruan eragiten**

Euskaraz lan egin daitekeela erakusten dute enpresa hauek eta bakoitza kokatuta dagoen inguruan euskara normalizatzeko eragile ere badela. Batzeko Belaustegigoitia dioenez, “eskualdeko enpresa, hezkuntza sistema eta ikasleengan eragina izaten ari gara eta hizkuntza kudeaketan eredu garela esan dezakegu”. Goizperko Azkaratek ere herriko mugimendu ezberdinetan “eragin” dutela dio: “Euskaraz lan egiteko gai garela ikusi dugunean eta herriko taldeetan parte hartu dugunean, talde horien funtzionamendua ere euskaratu egin dugu”.

Hiru dira Euskaragileen eragite esparruak: hornitzaileak, beste enpresak >>

eta langile berriak. Hiru esparru horietan eragiteko ekimen ezberdinak dituzte abian Euskaragileak proiektuan: Euskaragiletu programa, harrera-plan eredu eta ikastetxeekin hitzarmen-eredua, besteak beste.

Hornitzaileengan eragitea dela zailena diosku Azkaratek: "Hornitzaileen gaia lantzen eta sistematizatzen ari gara; erakusten diegu euskaraz egiteko gai garela eta horrekin eragin genezake beraien lanean ere".

Etorkizunera begira, "sektore desberdinetako sinergiak batuz, guztion artean elkar-elikatuz eta beharrezkoak



diren neurriak hartuz, etorkizun oparoa izango du euskarak lan-munduan", Belaustegigoitiaren ustez.

Azkaratek dio erakundeek "ahale-

gin handiagoa" egin beharko luketela enpresak euskarara erakartzeko, "hori eginez gero gure lanak ere indar handiagoa izango luke".

## Euskaragiletu programa, esperientziak lehen pertsonan ezagutzeko




Euskalduntze-prozesu aurreratuak dituzten edo euskararen normalizazio-prozesuan urte luzez aritutako Euskaragileak batzordeko enpresen esperientziak lehen pertsonan ezagutzeko programa da Euskaragiletu. Euskara Planak hobetzeko edo sortzeko eta euskararen normalizazio-prozesuan enpresek dituzten zailtasunei aurre egiteko, motibatze eta laguntza emateko informazioa eta jarraibideak elkartrukatzea da programaren helburua.

Euskaragileak batzordeko enpresetara bisitaldiak egitea da programaren ardatza eta horretarako bi multzotan banatu dituzte interesa izan dezaketen enpresak: Euskara Plana dutenak (A multzoa) eta Euskara Planik ez dutenak (B multzoa).

Programan parte hartu nahi izanez gero, Bai Euskarari Elkar-tearekin jar zaitezke harremanetan e-postaz [info@baieuskarari.eus] edo telefonoz:

+34 943 59 21 48 / +33 5 24 33 61 96.



## Ramon Mendiguren.

### Cikautxoko Bageinke euskara taldeko kidea

“Beste batzuen bizipenak bakoitzak dituenekin bateratuz gero, asko aurreratu daiteke”

**Euskaragiletu programan parte hartzen duten enpresetako bat da Berriatuako (Bizkaia) Cikautxo. Beren hizkuntza politika eta euskara plana gertutik ezagutzeko aukera dute euskararen arloan urratsak eman nahi dituzten enpresetako ordezkariak.**

#### **Zein da Euskaragiletu programaren helburua?**

Helburu moduan, entitate ezberdinetan jasotako esperientzia onak edo ikasitakoak elkarbanatzea litzateke. Asmoa da euskara bultzatzeko lanean denbora gehiago daramaten entitateetan ikasitakoak atzetik datozenekin elkartrukatzea, denbora motzagoan antzerako toki batetara hel daitezen.

#### **Zer eskaintzen zaie programan parte hartzen duten enpresei?**

Ideiak, hobetzeko bideak, ikasitakoak eta abar eskaintzen zaizkie beste enpresei Euskaragiletu programaren bidez. Beraien entitateetan martxan jar ditzaketen esperientziak, azken finean.

#### **Beste enpresa batzuen bizipenak eta egindako lanak ezagutzeak motibatuko du euskara enpresan txertatzeko, ezta?**

Bai. Beste adibide batzuk izatea eta gauzak aurrera eraman eta hobetu daitezkeela ikustea ona da. Izan ere, beti bilatu daitezke hobetzeko aukerak, egunero ikasten da zerbait berria, eta asko aurreratu daiteke beste batzuen bizipenak bakoitzak dituenekin bateratuz gero.

#### **Cikautxoren kasuan, Euskara Plana duzue. Zer lortu duzue Euskara Planarekin? Zer gainbalio eman dio zuen enpresari euskara lanean txertatzeak?**

Cikautxoren kasuan, Euskara Plana baino harantzago egin genuen salto. Hizkuntza politika bat sortu genuen eta bertan hizkuntza gehigarri bat bezala euskara ere sartu genuen. Horrela, hizkuntzak osotasunean kudeatzen ditugu eta tokian tokikoari, euskara Berriatuako egoitzan, indar gehiago emanda. Cikautxo Berriatuan kokatuta dago eta eskualde euskalduna gara. Egun guztian zehar euskara erabiltzeko aukera eman digu Planak. Izan ere, lanetik kanpo gehienok erabiltzen dugun hizkuntza euskara da eta lanera gatozenez ere euskara erabili ahal izatea ahalbidetu digu. Azkenik, euskara normalizatzeko bidea ere jorratu izan digu eta hiztegi tekniko bat sortu digu barne erabilpenerako.

#### **Bidea ez zen erraza izango. Zein oztopo izan dituzue? Nola egin diezue aurre?**

Edozein proiektu martxan jartzeko bidea egitea ez da erraza izate



**“Ideiak, hobetzeko bideak, ikasitakoak eta abar eskaintzen zaizkie beste enpresei Euskaragiletu programaren bidez”**

ten, ezta hizkuntzaren kasuan ere. Guk zirimiria bezala jardun dugu, hizkuntza politikari lotutako guztiak apurka-apurka jendeari zabalduz eta barneratuz. Bide horretan, kolektiboa eta zuzendaritza ere gehitu dira eta azkenean barneko prozesuetan eta sistemetan gauza asko txertatu ditugu. Orokorrean oztopo handirik ez da izan eta egon direnak konpondu ditugu. Baina egon da beldur bat, batez ere euskara bultzatzearen kontua ez dadin geratu pertsona konkretu batzuen eraginpean. Horregatik txertatu dugu euskara gure sisteman.

#### **Zer esango zenioke Euskara Plana txertatu nahi duen enpresa bati?**

Bidea luzea dela, batzuetan asko aurreratzen dela eta hurrengoan ez garela mugitzen dirudiela, baina bidea egin egiten dela. Kanpotik, inor ez da etorriko bidea egitera; bakoitzak hasi eta egin behar du bidea.

## Ketxus Amasorrain. Elayko Euskara arduraduna

Elayko Harrera-Plana izan zen Euskaragileak Batzordean sortutako harrera-plan ereduaren abiapuntua. Langileekin egindako hasierako harreman horrek duen garrantziaz hitz egin dugu Amasorrainekin.

*“Euskararen erabilera hasieratik sustatzea da harrera-planaren helburua”*



### **Zein helbururekin landu duzue harrera-plan eredia Euskaragileen batzordean?**

Enpresa batean, bizitzako beste eremu gehienetan bezala, lehenengo pausoak zuzenak eta ondo bideratuak izateak duen garrantzia jakinda, euskararen erabilera hasieratik sustatzea da lan-ildo honen helburu nagusia. Harrera-plan eredia edukiz gero, enpresa bakoitzak bere funtzionamendura egokitu dezake.

### **Zein garrantzia du langile berriei enpresaren hizkuntza kudeaketaren berri emateak?**

Harrera-plana da langileak enpresarekin duen lehenengo hartu-emana. Harrera-planean langileak sekulako informazio bonbardaketa jasotzen du. Garrantzitsua da langileari Kalitate Politika azaltzea, edo Ingurumen edo Prebentzio Politikak, horrela enpresaren irudi bat eraikiko du gai horien inguruan, eta kontatzen diogunaren arabera jokatu du. Hizkuntzarekin beste horrenbeste gertatuko zaio, hasiera-hasieratik zer eta nola azaltzen dugunaren arabera, bere jarrera modu batekoa edo beste-koa izango da hizkuntzari dagokionean.

### **Harrera egitean ez ezik, kontratazioarako orduan ere garrantzitsua izango da, ezta?**

Langile batek enpresa batean izango duen ibilbidea kontratazioan hasten da.

Hor egindako apustuek erabat baldintzatu dezakete enpresa baten bizi-iraupena, bai eta enpresak hurrengo urteetan edukiko duen morfologia ere. Beti egoten da kontratatzeke orduan antzemandako ahuleziak zuzentzeko aukera, formazio planekin batik bat, baina zenbat eta finago aritu kontratazioan, ondorengo lanak errazago bideratuko dira. Hau teknologiei, jarrerrei eta abarrei aplikatzen diedan moduan, hizkuntzei ere aplikatuko nieke %100ean. Kontratazio arduradunek hizkuntza politika barneratu gabe edukitzeak oso inpaktu negatiboa izan dezake, eta hori ez du harrera-planak zuzenduko.

### **Gaur egun erraza da langile euskaldunak aurkitzea?**

Nire ustez zerbait erraza edo zaila izateak norberak egoera horren aurrean duen jarrera eta motibazioaren arabera da. Zer jarrera dauka enpresak kontratazio baten aurrean? Zenbaterainoko motibazioa dauka kontratatzen ari denak langile euskaldun bat kontratatzeke? Aurkitzeko lehenengo bilatu egin behar da eta, askotan, zailtasuna aurkitzean baino bilatzean egoten da.

### **Zerbitzua eta Lana ziurtagiria eskuratzen lehen enpresa industriala izan zineten 2002an, aitzindari bihurtuz, eta gaur egun, helburuak beteta, Euskara Planik ez duzue. Zein oztopo izan dituzue bidean eta**

**“Kontratazio arduradunek hizkuntza politika barneratu gabe edukitzeak oso inpaktu negatiboa izan dezake”**

### **nola egin diezue aurre?**

Nik Elayn 20 urte daramatzat lanean, Euskara arduradun moduan bi urte besterik ez, euskararen bueltan beti ibili izan naizen arren. Oztopo nagusiak? Hornitzaileak konbentzitu behar izatea, langileen arteko hizkuntza-ohiturak aldatzea, dokumentazioa bi hizkuntzatan eduki behar izatea, kanpoan zerbaiten bila hastean euskarazko eskaintza oso baxua dela ikustea... asko daude.

Baina benetako oztopoa gainditu zuten ni Elayn lanera sartu aurretik zeuden guztiek: jabegoak, zuzendaritzak, langile kolektiboak eta pertsona katalizatzaile batzuek. Haiek apurtzaileak izan ziren, oztopoen gainetik bisioa eta konbentzimendua izan zituztelako. Bide berri bati ekin zioten; mendian elurte baten ondoren bidezidorra zabaltzeari ekiten dion mendizalea bezala, nondik nora joateko biderik ikusten ez zutela, elurraren sakontasuna zenbatekoa zen eta nahiko indar edukiko ote zuten ez zekitela ekin zioten.

## Xabier Malmasoro.

### IMHko irakaslea eta hizkuntza normalizaziorako teknikaria

Euskaragileen Batzordean enpresek ikastetxeekin duten harremanari garrantzia berezia eman zaio, batez ere, lan-mundura jauzia ematera doazen ikasle eta langile berriengan eragitearen ikuspegitik. Horren inguruan hitz egin dugu Malmasororekin.

## *Enpresak eta ikastetxeak lankidetzan zehazteko eta sistematizatzeko bidean, langile euskaldunak ziurtatzeko*

### Zer lortu nahi duzue enpresa eta ikastetxeen arteko hitzarmenarekin?

Hasieran Elay enpresa jarri zen gurekin harremanetan. Euskara Plana aurreratua dute bertan eta eskatu ziguten euren eta gure arteko harremana euskaraz izatea. Hala, bide horretatik guk eskaera berdina egin genion DanobatGroup-i. Haietara ere Euskara Plan garatua dute eta proposatu genien haien eta gure arteko harremana euskaraz izatea etorkizunean. Formazioan, praktiketan, harreman administrati- boan... Azken finean, hitzarmena sinatu dugu arlo guztietan euskararen presentzia areagotzeko.

### Akordioa eta enpresa-ikastetxe harremanak behin eta berriro aipatu dituzu. Zein arlotan eragiten du aipatu hitzarmenak?

Gure ikasleak lan-praktikak egitera joaten dira enpresa askotara eta euskaraz egiteko aukera ezinbestekoa da. Dual formazioan ere, gure ikasleek euren lana euskaraz egiteko aukera izan behar dute. Eta langile zein langabetuen kasuan ere, ikastaroen eskaintza euskaraz izatea oso inportantea da, nahiz eta arlo hau oraindik orain zaila goa den.

### Zein konpromiso biltzen ditu hitzarmenak?

Konpromisoak honako hauek dira:



ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izatea; edozein gairen inguruko txostenak euskaraz izatea; Danobatek IMHrentzat prestatzen dituen formazio saioak euskaraz izatea; eta Danobat enpresara praktiketara edo Dual formatuan doazen ikasleen formazioa eta harremana euskaraz izatea ziurtatzea. Lan munduan euskararen erabilera sustatzea ezinbestekoa da.

Industria arloan, makina-erremintaren arloan, bai seinale-paisaia aldetik, euskaraz irakurtzeko eta lan egiteko aukera egon behar da eta aurrerapausoak ematen ari gara arlo horretan. IMHrentzat eta Danobatgroup-entzat eus-

karaz lan egitea balio erantsia da. Haietara ere, Euskara Plan eraginkorra dutenez, inportantea da euren langileak euskaldunak izatea. Eta gurekin lortutako hitzarmenari esker, ziurtatzen dute, nolabait, euren langileak euskaldunak izango direla.

### IMHk hasieratik izan du euskaraz sustatzeko konpromisoa, ezta?

Egiazki, makina-erremintaren arloan, hastapenetan euskaraz ez zuten presentzia handirik. Milurteko berriarekin batera, 2002 urtetik aurrera, berriz, Euskara Plana martxan jarri genuen gure eskolan. Nahi genuen lanbide heziketako ikasleek euskaraz ikas zezaten, ondoren lana euskaraz egiteko.

### Etorkizunari begira, zer?

Euskararen presentzia sendotzen bada, eragileak daudelako izango da. Enpresetan eta ikastetxeetan eragileak behar ditugu mehatxuei aurre egiteko. Bereziki ikastaroen eskaintzan egin beharko dugu lan. Proaktiboagoak izan beharko dugu guztiok 2019-2020 ikasturtean horri heltzeko.

**“IMHrentzat eta Danobatgroup-entzat euskaraz lan egitea balio erantsia da”**

# Bai Euskarari Sariak urriaren 24an banatuko ditugu

2019ko Bai Euskarari Sarien ekitaldiaren data eta lekua finkatu ditugu; urriaren 24an izango da Donostiako Miramar Jauregian, 13:30ean. Aurreko edizioetan bezala, aurten ere publikoak saridunak proposatzeko bidea zabaltu dugu.

Alor sozioekonomikoan euskalduntzean eragitea da Bai Euskarari Elkartearen helburua eta sari hauen bidez arlo horretan euskara sustatzeko eragin duten entitateak eta pertsonak saritu eta eredu bihurtu nahi ditugu, modu berezi batean, laguntasun giroan eta Bai Euskarari komunitatearen berotasunetik.

Aurten ere hiru sari banatuko dira: Bai Euskarari Ziertagiria duten bi entitatek Bai Euskarari Saria jasoko dute eta hirugarren saria Euskal Herriko pertsona batek jasoko du, bereziki alor sozioekonomikoaren espaziotan euskara sustatzearen alde egindako lanetatik edo ekarpenetatik.

## Sarietarako proposamenak

Saridunak aukeratzeko garaian, publikoaren proposamenak ere hartuko dira aintzat eta ondoren, Bai Euskarari Elkartearen zuzendaritzatik hiru saridunak



hautatuko ditu. Publikoak ondorengo galdetegiaren bidez proposa ditzake Bai Euskarari Saria jasoko duten hautagaiak:



## Saridunak, urtez urte:

**2009:** JEZ (Laudio), IMH Institutua (Elgoibar) eta Kirmen Uribe.

**2011:** Refractarios Kelsen (Aduna), Hirukide ikastetxea (Tolosa), Sokoa (Hendaia) eta Xabier Mendiguren Bereziartu.

**2012:** Skunk Funk, Arlan (Erandio) eta Jose Anjel Iribar (Athletic).

**2013:** VUSA eraikuntzak (Galdakao), Leitzako, Aresoko, Goizuetako eta Aranoko ziertagiritunak, Anaje Narbaiza (Elay).

**2014:** Banaiz Bagara, Mendia Optika (Gasteiz) eta Kike Amonarriz.

**2015:** Euskal Herria Esnea, Nekatur eta Gaizka Garitano.

**2016:** Sorginen Museoa eta Lezea (Zugarramurdi), Laneki eta Mikel Lezamiz (Mondragon).

**2017:** Miren Fuldain Farmazia (Getaria), Zergatik (Urniet), Joxemari Sors eta Jon Jaka (Elkar Fundazioa).

**2018:** Mitxelena Koop. Elk. (Hernani), Fideslan (Donostia) eta Jon Garaño eta Aitor Arregi.

# LANsarean bilalan

lansarean.eus

@lansarean

in lansarean

## Euskarazko lan-ataria

Lan bila zabilta?

Lana eskaintzen duzu?



baieuskarari.eus



Ziertagiri bat baino askoz gehiago



# Bai Euskarari laguna izan nahi duzu?

Enpresa izan edo norbanako izan, Bai Euskarariren komunitatea eta bere proiektuak sendotzeko ekarpena egin dezakezu Bai Euskarari laguna izanez. Ekarpene hori eginda, gainera, zerga onurak ezarriko zaizkizu Bai Euskarari Elkarteak lehentasunezko mezenasgo jarduera izendapena jaso baitu Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik.



2007an sortu zen Bai Euskarari Elkarteak, lan munduaren euskalduntzean eragiteko, 2000an abian jarritako Bai Euskarari Ziurtagiriaren proiektua indartzeko, elkarlanaren bidez gidatzeko, zabaltzeko eta sendotzeko, eta gizartearen aurrean erreferentziala izateko xedearekin.

## Ziurtagiri bat baino askoz gehiago

Elkarlana da proiektu honen oinarria sorreratik beretik, eta denon inplikazioari eta ekarpenari esker pixkanaka hazi da eta jatorrizko proiektutik, ziurtagiritik, harago joatea lortu dugu. Gaur egun, Bai Euskarari ziurtagiri bat baino askoz gehiago da. Arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean eragitea helburu duen egitasmoa.

Ziurtagiria da Bai Euskarari Elkartearen proiektu nagusia, enpresa, saltoki eta era guztietako entitateen euskara maila aitortzeko eta bermatzeko

agiria. Ziurtagiriaz gain, arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera areagotzera bideraturiko hainbat proiektu martxan daude; besteak beste: Enpresarean, Lansarean lan-ataria, Euskaragileak eta Lanabes - Araban Euskara Lanean.

## Lehentasunezko mezenasgo jarduera

Bai Euskarari Elkarteak lehentasunezko mezenasgo jarduera izendapena jaso du Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik. Ondorioz, zerga onurak ezarriko zaizkio Bai Euskarariri egindako ekarpenari: enpresentzako kenkaria % 18koa da eta norbanakoentzat, berriz, % 30ekoa.

Enpresa izan edo norbanako izan, Bai Euskarariren komunitatea eta proiektuak sendotzeko eta zabaltzeko ekarpena egin dezakezu. Zuk aukeratu duzu zenbateko ekarpena egin nahi duzun hilero.

Kodea eskaneatu eta bertan aurkituko duzu Bai Euskarari laguna egiteko formularioa:



GURE KULTURAREN  
KOLORE GUZTIAK

LEITZARAN  
grafikak

Gudarien Hiribidea 29  
20140 Andoain (Gipuzkoa)  
Tf: 943 30 35 10  
[www.leitzaran.eus](http://www.leitzaran.eus)  
[grafikak@leitzaran.eus](mailto:grafikak@leitzaran.eus)

# 'Baieuskarari.eus' webguneko intraneta berritu dugu

'Baieuskarari.eus' webguneko intraneta berritzen eta osatzen aritu gara azken hilabeteotan. Bai Euskarari ziurtagiria duen entitate bakoitzak, dagokion informazio pertsonalizatua aurkituko du bertan.

Bai Euskarari komunitatea osatzen duzuen kideekin komunikazioa erraztu eta baliabide berriak eskaintzeko asmoz berritu dugu *Baieuskarari.eus* webguneko intraneta. Duela hiru urte egin genuen "Bai Euskarari Elkartearen eta bere proiektuak hobetzeko" galdetegian jaso zen eskaeretako bat izan zen intraneta sortzearena.

Entitate bakoitzak bere txokoa izango du bertan eta honako informazio eguneratua aurkituko du: datu pertsonalak, fitxak, fakturak, dagokion ziurtagiriaren irudia deskargatzeko aukera eta bakoitzaren diploma deskargatzeko aukera.


Horiez gain, Bai Euskarari Elkartearen beste bi proiektuetako webguneean saioa hasteko aukera dago bertatik, Enpresarean.eus eta Lan sarean.eus lan-atarian, hain zuzen ere.

Intranetaren helbidea honakoa da: <https://baieuskarari.eus/eu/saioa/login> Entitate bakoitzak jasoko duen erabiltzaile-izen eta pasahitzarekin izango du bertan sartzeko aukera.

## Zuzeneko txata

Intranetean informazioa eskaintzeaz gain, Bai Euskarari komunitatea osatzen duzuen kideekin zuzeneko komunikazioa indartzea da elkarrearen nahietako bat. Horretarako, ohiko komunikazio-kanalez gain, zuzeneko txata ezarri dugu Baieuskarari.eus webgunean. Hala, bulego ordutegian, Bai Euskarariko teknikariek zalantzak argitu eta galderak egiteko aukera izango duzue zuzenean txataren bidez.

Gainerako bideak ere zabalik daude zalantza edo iradokizunei erantzuteko: [info@baieuskarari.eus](mailto:info@baieuskarari.eus) e-posta helbidea eta elkarrearen telefonoak: +34 943 59 21 48 / +34 673 81 10 48 / +33 5 24 33 61 96.



**NEURTU ZURE ERAKUNDEAREN  
HIZKUNTZA EGOERA**

**6 PAUSOTAN**

**ZUK ZEUK, AZKAR ETA ERRAZ**

**BETE ZURE  
AUTO-DIAGNOSTIKOA**

[baieuskarari.eus](https://baieuskarari.eus)

Ziurtagiri bat baino askoz gehiago

## 32 entitate berri 2019an

Bai Euskarari komunitateak hazten jarraitzen du eta 2019ko urtarriletik ekainera bitartean 32 entitate berri gehitu zaizkigu Bai Euskarari ziurtagiridunen komunitatera: hiruk 'Zerbitzua eta lana euskaraz' maila eskuratu dute; 10ek 'Zerbitzua euskaraz' maila; eta 19 entitatek 'Bidean' mailako ziurtagiria eskuratu dute.

Euskararen normalizaziorako neurriak hartzeko eta garatzeko konpromisoa hartu dute entitate hauek guztiek. Zorionak eta ongi etorri!

**bai**  
euskarari

zerbitzua eta  
lana euskaraz

### Zerbitzua eta Lana euskaraz

1. Betiko Ikastola (Leioa, Bizkaia)
2. Hik Hasi (Donostia)
3. Zinea Sortzen (Donostia)

**bai**  
euskarari

zerbitzua  
euskaraz

### Zerbitzua euskaraz

4. Andere Produktu Profesionalak (Azpeitia, Gipuzkoa)
5. Aulkia (Donostia)
6. Amorrortu Osteopatia Fisioterapia (Gasteiz)
7. Blasenea Mintegi Ekologikoak (Zarautz, Gipuzkoa)
8. Bioarteko Landa-Ingurumen zerbitzuak (Zarautz, Gipuzkoa)
9. Elduaien Hizkuntza Eskola (Donostia)
10. Elduaien Hizkuntza Eskola (Irun, Gipuzkoa)
11. Irribarre Zabalgana (Gasteiz)
12. Kokoak (Galdakao, Bizkaia)
13. Oreka IT - Nafarroa (Mutiloa, Nafarroa)

**bidean**

euskararen  
bidean


### Euskararen bidean

14. ABS ikus-entzunezkoak (Hernani, Gipuzkoa)
15. Aldama Arrandegia (Laudio, Araba)
16. Beurko Check (Barakaldo, Bizkaia)
17. FLUGE Euskadi (Hernani, Gipuzkoa)
18. FORNAYU Trade (Gasteiz)
19. Gamarra Ostalaritza Eskola (Gasteiz)
20. Global Action Plan Euskadi (Bilbo)
21. Holding Ostalaritza (Bilbo)
22. IFAP akademia (Basauri, Bizkaia)
23. Ikasauto (Barakaldo, Bizkaia)
24. La Burundes (Aitzoain, Nafarroa)
25. Mikeldi Ikastetxea (Bilbo)
26. Marfil bidaiak (Barañain, Nafarroa)
27. Oiandi Cafe-bar (Gasteiz)
28. Orain Taberna (Gasteiz)
29. Peio Beaucoueste mugimendu artatzailea (Hendaia, Lapurdi)
30. Poolsport Soluciones (Leioa, Bizkaia)
31. Urgatzi Taldea (Getxo, Bizkaia)
32. Vinylora (Gasteiz)



**mitxelena**

LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING



Neurri  
handiko  
mekanizazioa

Eziago poligonoa, 21

HERNANI

T. 943 55 25 12 - 16

T. 943 55 28 16

info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com



# Aurrera egin beharrean, atzera

**2018an alor sozioekonomikoan hizkuntza-eskubideen egoera zein den aztertu du Behatokiak. Merkataritzan, finantza entitateetan eta ostalaritzan euskararen erabilerak aurrera egin beharrean, atzera egin du.**

Euskararen Telefonoaren eta Akui-lari aplikazioaren bitartez herritarrek helarazten dituzten bizipenetan oinarrituta hizkuntza-eskubideei buruzko argazkia eskaintzen du urtero Hizkuntz Eskubideen Behatokiak. Horrela, aurkeztu berri du Behatokiak 'Hizkuntza Eskubideak Euskal Herrian 2018an' txostena. Eta zein kolore du 2018ko argazkiak saltoki, enpresa eta era guztietako entitateek herritarrei eskaintzen dieten zerbitzuei dagokionean? Kolore biziegirik ez, egia esan. Kontsumo zerbitzuen alorrean oso zabaldua dagoen esamoldea da "bezeroak arrazoia du beti". Bada, ez da horrela izan kontsumitzaile euskaldunentzat; izan ere, euskaraz aritzea ez baita erraz lortzen kontsumo zerbitzu anitzetan eta, ahoz zein idatziz, zailtasunak aurkitu dira euskaraz jarduteko.

Garbiñe Petriati Ijurrak, Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendariak jakinarazi duenez, "merkataritza gune handiek barra-barra zabaltzen duten publizitate euskarrietan maiz utzi dute bazter euskara. Era berean, ohikoa izan da denda edo establezimendu barruko kartelak zein errotuluak erdara hutsean egotea. Produktuen etiketa eta jarraibideak hainbat hizkuntzatan azaltzen dira, baina euskara ez da inon ageri. Ezta Euskal Herrian bertan ekoi-



tziak diren kasuetan ere." Halaber, fakturak, txartelak, gutunak, tiketak, sms-ak eta abar ere maiz erdara hutsean bideratu zaizkie herritarrei.

## Finantza entitateetan eta ostalaritzan

Finantza entitateek, telekomunikazio eta energia hornitzaileek, euskarria edozein dela ere, erabiltzaileei orokorrean zuzendutako informazioa eta baita publizitatea ere, erdara hutsean zabaldu dute. Herritarrek nekez

lortu dute establezimendu hauetan idatzizko eta ahozko arretak euskaraz jasotzea.

Ostalaritzan, merkataritza txikian eta bestelako zerbitzu orokorrak eta profesionalak jasotzeko orduan, "ha-

**"Gune turistikoetan merkataritza turismoari zuzentzen hasi zaion heinean, presentzia galdu du euskarak".**



enpresarean

enpresarean.eus

f /enpresarean

t @enpresarean

## Enpresa eta profesional sarea, euskaraz

Enpresa munduko albisteak  
Elkarlanerako komunitatea  
Azokari buruzko informazioa  
Enpresarean Foroa  
Enpresarean TB



baieuskarari.eus

f t r y .. @

Ziurtagiri bat baino askoz gehiago

# Hizkuntza Eskubideen egoera 2018



HIZKUNTZA ESKUBIDEEN  
BEHATOKIA

maika traba gainditu behar izan ditu kontsumo-harremanak euskaraz egiteko: jatetxeetako kartak, oharrak, fakturak, prezioak, eskaintzak... erdara hutsez topatu ditu kontsumitzaile euskaldunak” adierazi du Petriatik. Areago, duela urte batzuetatik hona zabaldu den joera nabarmendu egin da 2018an: gune turistikotik merkataritza turismoari zuzentzen hasi zaion heinean, presentzia galdu du euskarak. Gune horietako denden, jatetxeen eta komertzioen eskaintzetan ingelesak gero eta presentzia handiago du, bai errotuluetan, bai eta testuetan ere. Are eta handiagoa hiri handietan. Ingelesarekin batera beste hizkuntza batzuk ere ikus daitezke: frantsesa, alemanera, italiara...

## Euskararen erabilera bermatzeko neurririk ez

Euskal Autonomia Erkidegoan kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak aitortuta daude legez, eta arlo jakin batzuetan aritzen diren enpresa eta establezimendu ba-

tzuk behartuta daude eskubide horiek bermatzera: produktuak saldu edo zerbitzua ematen duten enpresa handiak, finantza entitateak, merkataritza gune handiak, telefonia operadoreak... Baina betetzen dituztela bermatzeko neurririk ez dago, ordea.

Entitateen borondatearen mende geratzen da erabiltzaileekiko euskarazko harremana bermatzea. Horrela, eskubidea diskurtso hutsean geratzen da, eta ez betetzeak inongo ondoriozik ez duenez, 2018an errepikatu diren gertaerek erakusten dute ez dela tresna eraginkorra hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

Nafarroako Foru Erkidegoan eta Ipar Euskal Herrian, berriz, linboan segitzen dute erabiltzaile eta kontsumitzaile euskaldunen eskubideak, inongo aitortzarik gabe. Horrela, legeak inongo babesik eskaintzen ez diolako edo legea ez betetzeak inongo ondoriozik ez dakarelako, kontsumitzaile euskaldunak salduta ikusi du bere burua.

Gaur egun kontsumo eta zerbitzuen kontratazioak gure bizitzan hartzen duen lekua handia da oso. Harreman

horiek euskaraz egiteko zailtasunek nekezagoa egiten dute euskaraz bizitzeko hautua egin duten erabiltzaileen bizitza. Erabatekoa da gaztelaniaren eta frantsesaren nagusitasuna, eta asko dago egiteko euskaldunen hizkuntza-eskubideak berma daitezen.

Berezkoa duten esparruaz gainera, administrazioek arlo sozioekonomikoan duten irismena baliatu behar dute zerbitzu profesionaletan, lan jardueran, kontsumo-harremanetan eta abarretan euskararen erabilera arautzeko eta jarraipena egiteko.

Testuinguru horretan, administrazioen esku-hartzearekin batera, Petriatik dio garrantzitsua dela alor honetan enpresak, saltokiak eta era guztietako entitateak euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko neurriak gartzten laguntzen duten Bai Euskarari Ziurtagiria bezalako tresnen balioa: “Euskaraz lan egin ahal izateko, euskaraz kontsumitu ahal izateko, euskaraz saltzeko eta erosteko, finean, euskaraz bizitzeko baldintza egokiak sortzen laguntzen duen tresna delako”.

**“Bai Euskarari Ziurtagiria bezalako tresnen balioa. Euskaraz lan egin ahal izateko, euskaraz kontsumitu ahal izateko, euskaraz saltzeko eta erosteko, finean, euskaraz bizitzeko baldintza egokiak sortzen laguntzen duen tresna delako”.**

# EUSKARA ETA KULTURA HERRIAREN GEROA



elkar  
fundazioa



## *Arabako enpresetan euskararen erabilera areagotzeko doako pilotajeak egingo ditugu*

**Lanabes - Araban Euskara Lanean ekimenaren barruan, 21 enpresatan euskararen erabileraren diagnostikoak sustatzeko zerbitzuaren kontratua egin du Arabako Foru Aldundiak Bai Euskarari Elkartearekin. Hala, metodologia ulergarri eta pilotaje erraz eta doako baten bitartez, Arabako enpresetan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko laguntza eskainiko dugu.**

Enpresetan egingo diren diagnostikoek atal hauek jaso eta aztertu beharko dituzte: hizkuntza gaitasuna; erakundearen irudi korporatiboa eta hizkuntza paisaia; erakundearen kanpo harremanak; erakundearen barne harremanak. Gainera, diagnostikoarekin batera honakoa aurkeztu beharko da: mikroplana (ekintzen proposamena) eta hizkuntza egoeraren ziurtagiria.

Euskararen erabileraren gaineko diagnostikoa izateko aukera duten enpresen artean honakoak lehenesten dira: Lanbide Heziketako ikasleen praktikak euskaraz egiteko hartzen dituzten enpresak; Lazarraga Sarietan, Aenkomer sarietan edo Arabako Merkataritza eta Industria Ganbarak saritutako enpresak. Hala ere, gainerako enpresak ez dira baztertuko.

### **Iaz 18 entitatek lortu zuten Bai Euskarari Ziurtagiria**

Pilotaje prozesua martxan jarri zen 2018an eta, prozesu horri esker, Arabako 18 entitatek Bai Euskarari Ziurtagiria lortu zuten: Baias Garagardotegia, Zainduz fisioterapia, EBA SL, Arbel kooperatiba, Gaubea Zalditegia, Sartu Araba, Saregune Komunitate Teknologia, Kintelena janari denda, Aiaraldea Ekintzen Faktoria, Sarayola, Azala espazioa, RPK, Artepan, Delabor Ase-soria, Mamia, Teklak Komunikazio eta audientzien estudioa, Instituto Europa eta Suministros Uriarte. Hala bada, pilotajeen bitartez, euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko lanean jarraituko dute entitateok.

### **Arabako entitateei zuzenduta**

Zure entitatearen hizkuntza-egoera zein den jakin nahi izanez gero, Baieuskarari.eus webgunean aurkituko duzun autodiagnostikoa egin dezakezu [<https://baieuskarari.eus/eu/autodiagnostikoa>]. Zure erakundearen hizkuntza-egoera zein den ezagutzen lagunduko dizun aplikazioa da autodiagnostikoa. Maila zehatza jakiteko eta hobetzen laguntzeko, zurekin harremanetan jarriko da Bai Euskarariko teknikari bat.

Pilotajearen prozesuan parte hartu nahi duten Arabako enpresak Bai Euskarari Elkartearekin jar daitezke harremanetan, autodiagnostikoa beteta, e-postaz [[info@baieuskarari.eus](mailto:info@baieuskarari.eus)] edo telefonoz: **945215196 / 677415084**.

# Enpresa-proiektuak ezagutzen Enpresarean TB-n

Euskal Herriko 11 enpresa ezberdinetako proiektuak ezagutu ahal izan ditugu urte honetan Enpresarean TB-ri esker. Euskaraz lan egin nahi duten enpresen eta profesionalen arteko harremana eta elkarlana sustatu nahi ditu Enpresarean proiektuak eta helburu horrekin jaio zen Enpresarean TB ere.

2019 urtea hasi zenetik sektore ezberdinetako 11 enpresek eskaini dute 15 minutuko zuzeneko hitzaldia Enpresarean TB kanalean eta lerro hauetara ekarri ditugu proiektu horietako batzuk. Guztiak berriz ikusteko aukera dago *Enpresarean.eus* webgunearen Nahieran atalean [<https://enpresarean.eus/nahierantb/pasatakoak/>].



Enpresarean TB zuzenean - Oreka IT



Enpresarean TB zuzenean - Euskal Moneta

## Oreka IT

Oreka ITko Arrate Sánchezek eta Xabier Legardak ETEeKIN zerbitzuaren inguruko azalpenak eman zituzten. Behar informatikoak azpikontratatu behar dituzten enpresa txiki eta ertainentzako produktu berezia da ETEeKIN [<https://eteekin.eus/eu/>]. Abenduan jarri zuten martxan zerbitzua eta Oreka ITk garatzen duen ERP sistemaren bertsio txikia eskaintzen dute; ERP malguagoa eta eskuragarriagoa.

## Global Action Plan Euskadi

Jaione Pagazaurtunduk GAP programaren berri eman zigun. Mundu iraunkorrago bat izateko eguneroko ohiturak hobetzen erakusten du GAP programak eta horretarako proiektu ezberdinak dituzte martxan. Horietako bat da BerrAktibatu+ ekimena [<https://reactivatemas.eus/eu/>]. Kontzientzia-zioa da programa horren ardatza eta, unibertsitate, ikastetxe eta etxeetan eragin nahi da.

## Lotura

Webguneen garapenean eta eraldaketan digitalerako aholkularitzan dira adituak Lotura kooperatiban [<https://www.lotura.com/>]. Enpresa edo behar bakoitzerako garapen pertsonalizatuak egiten dituzte. Kudeaketarako sistema berezia dute, bezeroen beharretara egokitzen dena. Garapena bideratuta dago webgunearen mantentzea ahalik eta errazena izan dadin; webgune iraunkorrak egiten dituzte.

## Ekolio

Ekolioko [<http://ekolio.eus/>] Haimar Arozenak eman zigun enpresaren berri. Olioia doan jasotzen dute Gipuzkoako ostalaritzan eta biodiesel egitera bideratzen dute. Gizarte-ekonomia zirkularraren printzipioetan oinarrituta, biodiesel egitera bideratzen duten olio salmentatik ateratakoa ekimen ekosozioikulturaletara dohaintzan ematen dute.

## Euskal Moneta

Xebax Christy Euskal Moneta Elkarteko [<http://www.euskalmoneta.org/>] lehendakaria izan genuen Euskoaren inguruko azalpenak ematen. 2013an sortu zen Ipar Euskal Herriko tokiko moneta da Euskoa. Hasieran billeteak ziren, baina 2017az geroztik, moneta digitala ere bada. Enpresa edo norbako bakoitzak kontu bat ireki dezake elkarteak kudeatzen duen sisteman eta, kontu horri loturik, ordainketa-txartela dute Euskoa darabilten komertzioetan erosteko.

## Zubigune


Prestakuntza iraunkorraren inguruan hitz egin ziguten ZubiGune Fundazioko [<https://www.zubigune.org/eu/>] Eider de la Cruzek eta Ander Peralesek. Gaur egun, gizartean orokorrean eta zehazki lan-munduan, ematen ari diren aldaketak direla eta prestakuntza iraunkorrak berebiziko garrantzi daukela nabarmendu zuten.



# ZER DA BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA?

Eremu sozioekonomikoan euskararen erabilera areagotzeko helburuarekin lanean ari diren enpresak, saltokiak eta era guztietako entitateak identifikatzen, aitortzen eta pausoak ematen laguntzen duen tresna da. Bai Euskarari Elkarteak kudeatzen du.

## ZIURTAGIRIA LORTZEKO IRIZPIDEAK



## ZIURTAGIRIAREN 3 MAILAK



### “EUSKARAREN BIDEAN” ZIURTAGIRIA

Euskararen normalizaziorako neurriak hartzen eta garatzen ari diren enpresei, saltokiei eta era guztietako entitateei zuzendua.



### “ZERBITZUA EUSKARAZ” ZIURTAGIRIA

Zerbitzua euskaraz eskaintzen duten enpresei, saltokiei eta era guztietako entitateei zuzendua.



### “ZERBITZUA ETA LANA EUSKARAZ” ZIURTAGIRIA

Zerbitzua euskaraz eskaini eta euskara lan hizkuntzatzatzen duten enpresei, saltokiei eta era guztietako entitateei zuzendua.

## NOLA ESKURATU ZIURTAGIRIA?



## JARRI GUREKIN HARREMANETAN

2 modu dituzu:

**1**  
**Bete autodiagnostikoa**  
baieuskarari.eus/eu/auto-diagnostikoa  
eta **gu jarriko gara zurekin harremanetan!**

**2**  
(+34) 943 59 21 48  
(+33) 5 24 33 61 96  
info@baieuskarari.eus



baieuskarari.eus  
f t r y d  
Ziurtagiri bat baino askoz gehiago